

Euskadi Información



Argazkian, Portland-San Antonio eskubaloi taldearen entrenatzailea, sagardo sasoiari hasiera ematen.

Ardo hori naparra

Zupo Ekisoainek Nafarroako sagardo sasoiari hasiera eman zion atzo Beruetekeko «Txasenekoborda»

Gipuzkoan asteazkenean egin zen moduan atzokoan Nafarroako sagardo sasoiari eman zitzaion hasiera ofiziala. Pertsona ezagun ugariaren artean Zupo Ekisoain, Portland-San Antonio eskubaloi taldeko entrenatzaileak «Sagardo berria» esan eta aurtengo lehenengo sagardoa dastatzeari ekin zion. Sagardotegien zaletasuna gero eta hedatuago dago Nafarroan eta aurtengo asko izango dira bapora jan eta sagardoa edatera hurbilduko direnak.

IRUÑEA

Urtero legez, Gipuzkoako sasoiak baino egun batzuk gerago hasi da Nafarroakoa. Beruetekeko «Txasenekoborda» sagardotegian zen hitzordua eta horretara, aurtengo sagardoari ongi etorria eman asmoz, jende franko hurbildu zen, joan den asteazkenean gipuzkoarrek Astigarragako «Petrítegi» sagardotegian egin zuten moduan.

Gipuzkoan Jose Mari Arzak sukaldaria arduratu zen sasoiari ongi etorria ematen. Bitxia badi-

rudi ere Berueteraino hurbildu ziren gehienak kirolariak ziren. Besteak beste, Portland-San Antonio eskubaloi taldeko jokalariek; Mikel Goñi eta Jorge Nagore pilotariak eta Migeltxo Saralegi harrijasotzailea. Atzerriarrik ez zen falta eta hor zegoen Trzeciak Osasuna taldeko aurrelari poloniarra, gorritxoek oso maite duten herrikide batekin: Jan Urban jokalaria ohia. Hazez gain, Manolo Arozena eta Bittor Elizagoien bertsolariak ere sagardo berria dastatzera bertaratu ziren Beruete herrira.

Hauez gain, gehien nabarmentzen zirenak kazetariak ziren. Izan ere, duela gutxi arte sagardoaren inguruko zaletasunak oihartzun gutxi izan badu ere, gero eta jakinmin handiago sortzen du sagardotegien munduak. Honela, Zupo Ekisoain Portland-San Antonio taldeko entrenatzaileak lehen basokada edateari ekin behar zionean hamaika kamara zituen aurrean atzokoan.

Hiru zurrutada

Ohiturak agintzen duen moduan, «Sagardo berria» esan ondoren entrenatzaileak aurtengo lehen-dabiziko sagardoa edan zuen. Baina ez batean, ezta bitan ere, hirutan edan zuen ardo hori naparra. Antza denez, argazkilari guztiek ezin izan zituzten nahi adina argazki egin eta hirutan errepikatu behar izan zuen Ekisoainek zurrutada. Modu honekin, hasiera ofiziala eman zi-

tzaion Nafarroako sagardo sasoiari.

Dastatu zutenen arabera, sagardo gozoa zen atzo Beruete edan zutena eta hala baieztatu zuen Angel Alvarez, «Txasenekoborda» sagardotegiko nagusiak. «Aurtengo sagardoa polita dago, nik uste ongi dagoela, agian garraztasun pixka bat falta zaio, baina hori da sagar garraztasun falta delako», azaldu zigun aditu honek.

Alvarezek argitu zuen garraztasun faltaren arazoa ez dela bakarrik Nafarroan gertatzen; Europa guztian gertatzen da beste horrenbeste.

Bertako sagarrarekin

Hala ere, Gipuzkoan ez bezala, Beruete behintzat ez dute sagarra faltan izan, «aurten lehenengo aldiz, den-dena bertako sagarrarekin egin dugu» dio Alvarezk. Aurtengo Gipuzkoako sagardotegiei sagarra saldu dietela

gaineratu zuen. Gainera, gipuzkoarrek Estatu frantsesetik ere behar izan dute sagarrraren erdia.

Sagardotegien ohitura eta gehiago ari da errotze Nafarroan, urtetik urtera sagardi berriak irekitzen dituz gero eta jende gehiago hurbiltzen da sagardotegietara. askoren esanetan hau, beste korekin gertatu den bezala, sasoiko den moda izango da. Angel Alvarez ez dago oso baieztapen honekin. «Nik uste kit hau moda bat izango ote den baina honela bada oso modakoa ari da izaten. Moda orain dela hamar bat urte ziren esaten eta oraindik sasoiko den moda izango da. Izatekotan, moda berria egonkorra izaten ari da», azaldu zuen Alvarezk.

Aintzinako ohiturak ez sekula moda hutsean geldituko dira Euskal Herrian.